

Testua irakurri:

Mendekoste Eguna



Maria eta apostoluak eserita zeuden Afaltegian. Ez ziren ausartzen kanpora irtetera, juduen errepresalien beldur.

Mendekoste Egunean berebiziko zerbait gertatu zen eta beren bizitzak zeharo aldatu ziren: **Jesusen Espirituaren** indarra jaso zuten.

«Bat-batean, haize-boladarena bezalako burrunba bat etorri zen zerutik eta beraiek zeuden etxe guztian durundi egin zuen. Orduan, suzko mihiak bezalako batzuk ikusi zituzten, bakoitzaren gainean bat kokatzen. Denak Espiritu Santuaz bete ziren eta hizkuntza arrotzez hitz egiten hasi, bakoitza Espirituak eragiten zion eran».

Eg 2,2-4



Kalera irten ziren, pozez beterik, Jesusekin ikusi eta ikasi zutena azaltzeko.



Jesusi buruz hitz egiten zutenean, jendeak ulertu egiten zien.



Haiei hizketan entzutean jendea txunditu, eta kristau izan nahi zuten.



Bideoa ikusi::



MEDEKOSTE

Erantzun Medekoste Egunean gertatutakoari buruzko galdera hauei:

1) Nortzuk elkartu ziren Afaltegian?

2) Zergatik ez ziren irteten handik?

3) Bakoitzaren buru gainean zer kokatu zen? Zeren antza zuen?

4) Zer-nolako eragina izan zuen Espiritu Santuak haiengan, zer eman zien Espiritu Santuak?

Aukeratu hitz egokiak, bakarrik hiru hitz egokiak dira (**lotsa, indarra, animoa, tristura edo poza**).